

# Lapurdi kostaldeko etxeen metro koadroa 3.500 eurotik gora dago

Century 21 etxe agentziak eta Etxebizitza kolektiboak euren datuak azaldu dituzte, aurrez aurre

HARTZEA LOPEZ ARANA  
Baiona

«Ez gara egoeraren arduradunak. Jabe batek ez du inoiz bere ondarea prezioaren %30 baino gutxiagoan saltzen utziko», dio Century 21 etxe agentziako arduradun batek. «Ez zarete arduradun bakarrak, baina zuen merkataritza jarduerak arazoa bere horretan atxikitzen du», erantzun dio Etxebizitza kolektiboko kide batek.

Bi prentsaurreko egin ziren atzo goizean, parez pare, Baionako Merkatal Ganberan. Gai beraren inguruan, jakina, baina ikuspegi oso kontrajarriekin. Lehena, Century 21 enpresak antolatua, Lapurdiko kostaldean etxebizitzaren sektoreak aurtengo lehen sei hilabeteetan ukan bilakaera ezagutarazteko. Bigarrena, egoitzaren atarian eta polizien begiradapean, Etxebizitza kolektiboarena, «Euskal Herrian dagoen espekulazioaren merkata» aipatzeko. Bukaeran, batak eta besteak gurutzatu eta eztabaidari ekin zioten, istilurik gabe. Adostasun puntu bakarrera ere iritsi ziren: etxeen eta lurren pre-

zioa «arazo politiko» dela onartu zuten denek.

**PREZIOEN BATEZ BESTEKOA.** Century 21eko arduradunek bi eremu geografikotan banatu zituzten euren agentzietan bildu emaitzak aurkezpenaren egiteko: kostaldea (Hendaia, Donibane Lohizune eta Miarritze) eta Baiona-Angelu-Miarritze eremua (BAM). Uztaritzeko eta Kanboko datuak ere gaineratu zituzten. Metro koadroa, batez beste, 3.235 euroan saldu zuten 2007an; hots, iazko zenbakiekin alderatuz, %0,5 gehiago. Apartamenduen prezioa (3.294 euro) etxeena baino (3.1819 euro) garestiagoa da. Erosketa baten prezioan, aldiz, etxeak dira garestiago: 362.534 euro balio du batez beste, apartamendua 202.075 euroan izanki. Bietan, 78 metro koadroko hedadura hartu dute oinarritzat. Salmenten %69,03 lehen etxebizitzetarako izan da, %27,42 bigarren etxebizitzetarako eta %3,55 inbertsioetarako. Adinari dagokionez, erosleek %45ek berrogei urte baino gutxiago dituzte.

Hendaian, Donibane Lohizunen eta Miarritzen dira, Century 21eko datuen arabera, etxeak garestien saltzen: metro koadroa 3.751 eurotan dago batez beste. Eremu horretan saldu dituzte bigarren etxebizitza ere, %46,37. Joera hori esplikatzeke, jabeek etxez maiz aldatzen



Etxebizitza kolektiboko ordezkarien agerraldia, atzo, Baionan. HARTZEA LOPEZ ARANA

dutela baieztatu zuten. Hendaian, aldiz, aparteko kasua ari da gertatzen: salmenten merkatuak behar bada nabarmena ezagutu du, Hego Euskal Herriko ekonomiari zuzenki lotuta egonik.

Lapurdiko kostaldeko etxebizitzaren prezioa ia Pariskoan eta Azur kostaldekoen parekoak izan arren, Century 21eko arduradunek «prestutasunaren urtea» deitu zioten

«Etxe salmenta merkatuaren orekatze batera goaz, inflazioaren beharpenarekin»

CATHERINE DUBOIS  
UZTARITZEKO CENTURY 21 AGENTZIAKO BURUA

«Alokairua baino hiru aldiz handiagoa den soldata gabeko alokatzaileak ezin du etxebizitzarik atzeman»

FREDERIC CARRICART  
ETXEBIZITZA KOLEKTIBOKO KIDEA

2007ari. «Ez dago prezioen behar bada nabarmenik, baina inflazioa beheituz doa. Ez da gehiago bi zenbakikoa, %8an orekatzen da. Merkatuaren egonkortzearen seinalea da, etorkizunean areagotu behar lukeena. Etxe salmenta merkatuaren orekatze batera goaz, inflazioaren beharpenarekin». Catherine Dubois Uztaritzeko Century 21 agentziako burua esan zuen. Euskal Herrian bizitzeko dagoen eskera azkarra «hemen ongi eta seguru bizitzearen ondorioa» dela nabarmendu zuten, eta «urbanizazioaren fenomeno» azaldu: «Herri inguruetan gero eta biztanle gehiago dago, errepedeen sarea hobetu delako eta herrietan eraikitzeke eremuak hirietan baino handiagoak direlako».

**ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN ALDE.** Bestelako hotsak entzun ziren bigarren prentsaurrekoan, Etxebizitza kolektiboaren kideen eskutik. «Hon-

damen» deitu zioten etxebizitzaren merkatuari. «BAM eremuan 377 etxe agentzia zenbatzen dira, okindegiak baino bost aldiz gehiago. Benetako negozioa da, erasokorra, eta botere publikoen ekintza ezak, baita jabeen, sustatzaileen eta beste bitartekoen jarduerak oreka baten erdiesteoa suntsitzen dute». Adibide bat jarri zuen Frederic Carricart Etxebizitza kolektiboko kideak: «Alokairua baino hiru aldiz handiagoa den soldata gabeko alokatzaileak ezin du etxebizitzarik atzeman». Kazetariak, adi, eta galdezka: «Zer neurri proposatzen duzue egoera hobetzeko?». «Badira etxebizitza sozial arloan errespetatuak ez diren araudiak. Teorian herri bakoitzak %20 izan beharko lituzke SRU legearen arabera». Bigarren etxebizitzei dagokienez, zerga berezia eskatu zuten jabeentzat. «Gu ez gaude horretarako. Kargudun publikoen ardura da hori».

# Hegoaldean ez dira jasoko Espainiako Gobernuak etxea alokatzeko iragarritako laguntzak

Hauteskundeei begirako neurria dela salatu dute Nafarroako Gobernuak, Jaurlaritzak eta Batasunak

ERREDAKZIOA  
Donostia

Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidentek berak etxea alokatzen dutenei datorren urte-tik aurrera emango dizkien diru laguntzak iragarri zituen atzo: laburbilduz, 30 urtetik beherakoei hilean 210 euroko laguntza eta alokairuan bi direnek %10,05eko dedukzioa zergak ordaintzean. Hala ere, Hego Euskal Herriko herritarrek ez dituzte Espainiako presi-

denteak iragarritako laguntzak jasoko, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak etxebizitza eskuduntzak dituztelako eta pareko edo antzeko neurriak jada aplikatzen direlako.

Hauteskundeei begira hartutako erabakia dela leporatu diote Espainiako Gobernuari, bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafarroako Gobernuak.

Javier Buron Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeak atzo baztertu egin zuen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteei etxea alokatu ahal izateko diru laguntza ematea: «Ez da diru publikoa erabiltzeko modu erabilgarria. Hauteskundeei begira errentagarria izan daiteke, baina ez gizarteari begira».

«Egungo egoera politikoari dagozkion neurriak dira», esan zuen Carlos Esparza Nafarroako Etxebizitza kontseilariak. «Berandu dator. Espainiako Gobernuak iragan astean egin genuen Etxebizitza Batzordean aurkez zezakeen».

Javier Buron Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordearen iritziz, ordea, Zapaterok iragarritako neurriek «norabide ona» dute: «Parekatu egiten ditu etxea alokatzeagatik eta erosteagatik dauden dedukzioak eta alokairua bultzatzen du gazteek etxebizitza eskuratzeko». Hala ere, Buronek uste du neurriak eraginkortasunik gabeak ere izan daitezkeela: «Inolako kontrol publikorik ez badago alokairuak garestitutako ditu.

Gehiago gasta dezakeen jendea egoteak alokairuen prezioen igotzea eragin dezake».

Javier Buronek gogoratu zuen Eusko Jaurlaritzak abian duela alokairua bultzatzeko Bizigune programa; Carlos Esparzak, berriz, Nafarroan etxea alokatzen dutenek %15eko dedukzioa dutela zergak ordaintzean.

**ESKUBIDEA, NEGOZIO.** Batasunak salatu du Zapateroren iragarpenak «hauteskunde kiratsa» duela eta Euskal Herrian laguntzak jasoko ez diren arren, eragina izan dezaketela, etxebizitzaren alokairuak garestituz. Uste du PSOEek, EAJk eta UPNk etxebizitza eskubidea «espekulaziorako eta negozioa egiteko» erabili dutela.

■ neurriak

Hona hemen Espainiako Gobernuak datorren urtetik aurrera indarrean jarriko dituen neurriak:

Diru laguntzak

■ **Kopurua:** 210 euro hilean alokairua ordaintzeko eta 600 euroko mailegua bermea ordaintzeko. Jabeek sei hilabeteko abala ere jasoko dute, «alokatzen den etxearen jabearen segurtasuna areagotzeko».

■ **Baldintzak:** 22 eta 30 urte artean edukitzea eta urtean gehienez 22.000 euroko diru sarrera gordina edukitzea. Diru laguntza gehienez lau urtean jasoko da. Ez dira onartuko senideen arteko kontratuak.

Dedukzioa

■ **Kopurua:** %10,05ekoa, etxea erostegatik dagoenaren parekoa.

■ **Baldintzak:** Ez dago adin mugarik. Urtean gehienez 24.000 euroko diru sarrera gordina dutenentzako neurria da. 30 urtetik beherakoen diru laguntzak eta dedukzioa bateragarriak dira.